

ERIOZ OERAKO
GERTVERA



ATV
48860

ITXAROPENA ARGITALDARIA
ZARAUTZ

Bear dan baimenarekin



M- 8894

R- 36340

ATV
18.860

ERIO TZ ONERAKO GERTUERA

1. *Gaxo zaudenean:*

Gaxo bazaude, kristaua, jartzazu sendagilearen eskuetan zure burua: Jaungoikoaren legeen kaltezko txorakeri aundia da, arokeriz, ikusi oi dan bezela, sendatzailearen laguntza aintzakotzat ez artzea.

Bañon jo zazu batezere zeruko Sendatzaileagana: eskatu zaiozu osasuna, mesedezkoa bazaizu: bestela, eriotz on bat opa dakizula.

Azken-ordurako ez utzi elizakoak eskatzea: makiñabat, usterik gutxienean, erori dira betiko eriotzaren mendean, Eliz Amaren azken laguntzik gabe: ¡bel-durgañizko eriotza, kristau oiena! eta ¡zoritxañekoak orobat aitzaki gezurtiekin betiko-galera agian irabazi dieten oien guraso ta lagunak!

2. *Eriotza uréan dagonean:*

Orduan batezere zor diogu gaxo da-

gonari laguntza, andik laixter emango bait-da betiko zorionaren edo azkengabeko zoritxañaren epaia, gaxo oñentzat.

Suleizeko etsai gaiztoak ere bere aldetik, onduan egingo ditu iñoiz baño alegiñ aundiagoak anima ori galdu dezan. Lagundu dizaiogun gure aldetik, gure Eliza-Amak, lañaldi ortarako, gertu dituen otoitz ederak esanez:

Otoitzak

Gurutze-auñean kandela piztu, ta be-launikaturik esan:

Añentza

Kyrie eleison

Jauna, erukitu zakizkigu.

Christe eleison

Jesukristo, erukitu zakizkigu.

Kyrie eleison

Jauna, erukitu zakizkigu.

Sancta Maria, ora
pro eo (ea)

Maria Deuna, otoiz
egizu onen alde

Omnes sancti An-
geli et Archan-
geli, orate...

Aingeru ta Goain-
geru, guziak
...egizute...

Sancte Abel, <i>ora...</i>	Abel Deuna (San- tua), ... <i>egizu...</i>
Omnis Chorus jus- torum, <i>orate...</i>	Zoriontsuen sail osoa, ... <i>egizute...</i>
Sancte Abraham, <i>ora...</i>	Abraam Deuna, ... <i>egizu...</i>
Sancte Joannes Baptista, <i>ora...</i>	Juan Batailari Deu- na, ... <i>egizu...</i>
Sancte Joseph, »	Jose Deuna, ... <i>egi- zu...</i>
Omnes sancti Pa- triarchæ et Pro- phetæ, <i>orate...</i>	Aita-len eta igarle deun guziak, ... <i>egizute...</i>
Sancte Petre, <i>ora...</i>	Pedro Deuna, ... <i>egizu...</i>
Sancte Paule »	Pablo Deuna, ... <i>egizu...</i>
Sancte Andrea »	Andres Deuna, ... <i>egizu...</i>
Sancte Joannes »	Juan Deuna, ... <i>egi- zu...</i>
Omnes sancti Apostoliet Evan- gelistæ, <i>orate...</i>	Bidali ta goizpargi- le (Apostolu ta Ebanjelari) Deun guziak, ... <i>egizu- te...</i>

Omnes sancti discipuli Domini,
orate...

Omnes sancti Innocentes, *orate...*

Sancte Stephane,
ora...

Sancte Laurenti,
ora...

Omnes sancti Martyres, *orate...*

Sancte Silvester,
ora...

Sancte Gregori
ora...

Sancte Agustine
ora...

Omnes sancti Pontifices et Confessores, *orate...*

Sancte Benedicte,
ora...

Sancte Francisce,
ora...

Sancte Camille,
ora...

Jesukristoren ikasle
le Deun guziak,
...egizute...

Ume santu guziak,
...egizute...

Esteban Deuna,
...egizu...

Lorenzo Deuna,
...egizu...

Martiri (ziñopa)
Deun guziak,
...egizute...

Silbestre Deuna,
...egizu...

Gregorio Deuna,
...egizu...

Agustin Deuna,
...egizu...

Gotzai ta aitorle
Deun guziak,
...egizute...

Benito Deuna,
...egizu...

Frantzisko Deuna,
...egizu...

Kamilo Deuna,
...egizu...

ERIO TZ ONERAKO GERTUERA

Sancte Joannes de
Deo, *ora...*

Omnes sancti Mo-
nachi et Eremi-
tæ, *orate...*

Sancta Maria Mag-
dalena, *ora...*

Sancta Lucia, *ora...*

Omnes sanctæ Vir-
gines et Viduæ,
orate...

Omnes sancti et
sanctæ Dei, *in-
tercedite pro eo
(ea)*

Propitius esto,
parce ei Domine

Propitius esto,
*libera eum(eam)
Domine*

Propitius esto

Ab ira tua

A periculo mortis

Juan de Dios Deu-
na, ...*egizu...*

Praile ta Eremutar
Deun guziak,
...*egizute...*

Maria Magdalena
Deuna, ...*egizu...*

Luzia Deuna, ...*egi-
zu...*

Birjiñ ta Alargun
Deun guziak,
...*egizute...*

Jaungoikoaren
Santu guziak,
*jañi zaitezte
onen alde.*

Aren alde zerala-
rik, *barka zaio-
zu, Jauna*

Aren alde zerala-
rik, *gorde zazu,
Jauna*

Aren alde zera-
larik

Zure aseretik

Eriotz ariskue-
tatik

A mala morte
 A pœnis inferni
 Ab omni malo
 A potestate dia-
 boli
 Per nativitatem
 tuam
 Per crucem et
 passionem
 tuam
 Per mortem et
 sepulturam
 tuam
 Per gloriosam
 resurrectionem
 tuam.
 Per admirabilem
 ascensionem
 tuam
 Per gratiam Spiri-
 tus Sancti Para-
 cliti
 In die iudicii

LIBERA EUM (EAM) DOMINE

Eriotz txarëfik
 Suleizeko neke-
 -oñazetatik
 Gaitz guztietatik
 Deabruaren
 mendetik
 Zure jayotzaga-
 tik
 Zure gurutze ne-
 kaldiagatik
 Zure eriotz-lur-
 peratzeagatik.
 Zure piztuera
 adigariagatik.
 Zure ari garizko
 igoeragatik
 Espiritu Santuaren
 doaiagatik
 Azken-epai egu-
 nean

GORDE ZAZU, JAUNA

Peccatores, *te ro-
gamos audi nos*

Ut et parcas, *te ro-
gamos audi nos*

Kyrie eleison

Christe eleison

Kyrie eleison

Guripekatarioi, *en-
tzun zaiguzu,
aŕen.*

Barka zaiozula, *en-
tzun zaiguzu,
aŕen.*

Jauna, erukitu za-
kizkigu.

Jesukristo, erukitu
zakizkigu.

Jauna, erukitu za-
kizkigu.

Otoitza

(*Proficiscere*)

Kristau anima : irten zaite luŕalde ontatik, ezerezetik egin zinduan Aita Jaungoiko alguztidunaren izenean, zuregatik il zan Seme Jaungoikoaren izenean, zuzgan sartu zan Espiritu Santu Jaungoikoaren izenean, Jaungoikoaren Ama Maria Birjiñ Deunaren izenean, Jose santu, Birjiñ beraren senar ospatsuaren izenean, aingeru ta goiaingeruen izenean, Jargoi ta Menderatzalien izenean, Agintari ta Almenen izenean, Aingeru argi ta aingeru sutuen izenean, Apostolu (Bida-

li) ta Ebanjelari santuen izenean, Martiri ta Aitorle Santuen izenean, Lekaide (praile) ta Eremutar santuen izenean, Birjiñ deun eta Santu guzien izenean; izan bedi gaur zeruko atsedenean zure egon-lekua, ta zure bizitegia Sion Santua : Jesukristo gure Jaun beragatikan. Alaxe.

Otoitza
(*Suscipe*)

Jauna! Artzazu zure menpeko serbitzari au Zuk erukitasunez emango diozula uste duan zeruan. (Amen) Alaxe.

Jauna! Gorde ezazu onen anima suleizan (inpernuan) erortzeko arisku eta, neke estutasun guztietatik. Alaxe.

Jauna! Enok eta Elias il gabe gorde zenitun bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

Jauna! Ujolan Noe gorde zenduen eraz, gorde ezazu baita zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

Jauna! Kaldeotarén Ur zeritzaion eritik, Abraam atera zenduen bezela, gorde ezazu baita menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Job santuari bere oñazeak kendu zenizkion bezela, gorde ezazu baita zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Isaak bere aita Abraam'en eskuetatik bizirik atera zenduen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna Sodoma'tik eta sugařetatik Lot gorde zenduen eraz, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna Ejiptotařen eřege Faraon'en eskuetatik, Moises atera zenduen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Leoi-leizatik Daniel atera zenduen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Labeko surtatik, ta biotz gogoreko eřegearen eskuetatik iru gazteak atera zenituan bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Gezuřezko salaketatik Susana atera zenduen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Saul'en eta Goliat'en eskuetatik Dabid atera zenduen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

¡Jauna! Pedro ta Pablo Deunak espetxetik (presondegitik) atera zenituen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere. Alaxe.

Eta Tekla Deuna, Birjin eta Zinopa (Martiri) zorionekoa, iru neke ta oñaze ikaragarrietatik atera zenduen bezela, gorde ezazu zure menpeko onen anima ere Zurekin batean zeruko ontarteak izan ditzan.

℟. Alaxe.

Otoitza

(*Delicta*)

Jauna! Onen gazte-aldiko pekatuak ez ditzazula gogoan artu, baizik eruki aundiz eruki zakizkio, ta zeruko zure argitasunean oroitu ezazu. ¡ldiki bitez zeruak! ¡Poztu zaitezte Aingeruak, anima oñekin batean! ¡Jauna: artzazu zure menpeko au zeruan! Artu beza anima au zeruko gudari-taldeen agintaria dan Migel Deunak. Jaungoikoaren aingeru santuak: bidera irten zaitezte eta eraman zazute anima au zeruko Jerusalem urira. Jaungoikoaren eskuetatik zeruko giltzak artu

zituen Pedro bidali deunak, artu beza anima au. Pablo deunak, aukerazko ontzi-gaiak, lagundu beza. Jaungoikoak autatu duen eta zeruko ezkutapenak agertu diozkan Juan Apostoluak (bidaliak), eskatu beza onen alde. Lotu ta askatzeko eskubidea Jaungoikoagandik artu zuten Apostolu deun guziak otoitz egin bezate anima onen alde. Jaungoikoaren izenagatik, luñalde ontan, neke-
-oñazeak artutako Santu ta Zorioneko guziak, otoitz egin bezate anima onen alde; aragiaren lokariak askatu ta zeruko zoriona irixteko gai izan dedin, Aita ta Espiritu Santuarekin azkengabeko egunetan bizi ta agintari dan Jesukristo gure Jaunaren izenean. Alaxe.

Andre Maria'ri Otoltza

Andre Maria, Jaungoikoaren Ama erukior, ta naigabetuen alaitzaleak eskeñi dizaiola bere Semeari, iltzeko zorian dagon onen anima, Amaren bitartez, erioz-
-ikararik izan ez dezan, baizikan, iritxi dezan Aren laguntzaz, beti nai izan zuen zeruko egon-lekua. Alaxe.

Jose Deunari Otoitza

Zugana nator, Jose Deuna, il-zorian daudenen Zaindaria: eta zuri, zeure eriotz dontsuan Jesus ta Maria begira zegozkizun orí, eskar pozgarí bikoitz orégatik, zure ardurapean jartzen det il-zori neketsuan dagon N. mirabe onen anima, deabruaren maltzurkerietatik eta betiko eriotzatik, zure laguntzaz, aldendu dedin eta betiko zorionean sartzea merezi dezan. Kristo gure Jaunagatik. Alaxe.

**Il-zorian daudenen aldeko iru otoitz
oso egokiak**

Esan lendabizi :

Jauna, eruki zakizkigu
Jesukristo, eruki zakizkigu
Jauna, eruki zakizkigu.

Aita Gurea... Agur Maria...

Otoitza

Ondoren esan :

Jesukristo gure Jauna! Zure lañi - aldi santuagatik eta Olibete'ko mendian odollezko izerdi tantoak luñeraño ixuriz guretzat egiñ zenduen otoitzagatik eskatzen dizut : gure alde, ikara-lañiz, ixuri zen-

duen odol-izerdi ori, zure menpeko onen pekatu guztien ordañez, Aita Jaungoiko alguzidunari eskeñi ta eman dizaiozula, eta kendu dizaizkiozula beragatik eriotzaren zori ontan, bere pekatuen belduñak ezartzen dizkion ikara-lari guztiak.

Gizaldi ta gizaldietan, Aita ta Espiritu Santuarekin, bizi zeran eta agintzen dezun Jauna. Alaxe.

Bigarren aldiz esan len bezela :

Jauna, eruki zakizkigu... eta gero

Otoitza

Gurutzean gugatik il zeran Jesukristo gure Jauna! Aren eskatzen dizut : gu pekatariagatik gurutzean artu zenituen neke-oñaze ta eramankizun guzien samintasun garatzak, eta batezere zure gogoa (anima) gorputzetik irten zanean artutakoak, eskeñi ta eman dizaizkiozula Aita Jaungoiko alguzidunari, zure menpeko anima onen alde; ta aldendu dizaizkiozula eriotzaren zori ontan bere pekatuen belduñak ezartzen dizkion ikara-lari guztiak, gizaldi ta gizaldietan, Aita ta Espiritu Santuarekin, bizi zeran eta agintzen dezun Jauna. Alaxe.

Esan irugaŕen aldiz :

Jauna eruki zakizkigu... eta gero.

Ofoitza

Igarlearen aoz «betiko maitetasunaz maite izan zaitut, ta nere erukitasunean Niganatu zaitut» esan dezun Jesukristo nere Jauna: aŕen eskatzen dizut eman dizaiozula Aita Jaungoiko alguzidunari zure menpeko anima onen alde Zerori zerutik luŕera neke oñaze guztien samin-tasunak eramatera erakaŕi zinduan maitetasuna; eriotzaren zori ontan Bizitzako atea idiki zaiozu, ta egizu bera betiko zoriontsu zure santuen elkartasunean. Zure odol guztiz agurgarïarekin ber-erosi gaituzun Jesukristo gure Jaun txit erukitsua: eruki zakizkio zure menpeko anima oni ta eraman ezazu atsedentegiko bazter alai ta belarditsueta, zuretzat bizi dedin Zuk eta zoriontsuak zerruan daukazuten maitetasunaz beterik. Alaxe.

(Gaxoa iltzera dijoala igeriko diozunean, esan arekin batean, edo bakaŕik, berak ezin badu).

Jesus, Jesus, Jesus,

Zure eskuetan, jartzen det Jauna, nere anima.

Jesukristo nere Jauna, artu ezazu nere gogo.

Andre Maria, otoitz egizu neretzat.

Maria esker eta erukiaren Ama: etsai-engandik gorde nazazu, ta artu nazazu il zorian.

Oitura guztiz adigafia da, gaxoa eriozt-lafian dagoela erikoai adierazteko eliz-kanpaia astiro jotzea, danak bere alde otoitz egin dezaten.

(Azkenengo arnasa eman bezin laixter esazu).

(Subvenite).

e) Atozte Zeruko santuak; Jaungoikoaren aingeruak, irten zaitzte onen bidera: artu zazute bere anima ta eraman ezazute Jaungoikoaren aurera.

g) Deitu zizun Jesukristo'k artu zaitzala ta Abraam'en altzora aingeruak eraman zaitzatela.

e) Artu bere anima, ta eraman zazute Jaungoikoaren aurera.

g) Betiko atsedena emaiuzu, Jauna, ta azkengabeko argiak argitu beza.

e) Eraman zazute Jaungoikoaren aurera.

g) Jauna erukitu zakizkigu: Jesukristo erukitu zakizkigu; Jauna erukitu zakizkigu. *Aita Gurea...*

g) Ez gaitzazu utzi zitzaldian erortzen,

e) baizikan gaitzetik gorde gaitzazu.

g) Betiko atsedena emaiogu, Jauna.

e) Eta azkengabeko argiak argitu beza.

g) Suleizeko (inpernuko) sareratik,

e) aldendu ezazu bere anima.

g) Pakean bego.

e) Alaxe.

g) Jauna, entzun nere otoitza.

e) Ta Zugana nere eskaria eldu bedi.

g) Jauna zurekin.

e) Baita zure animarekin ere.

Otoitza

Jauna! : zure eskuetan uzten degu zure menpeko onen anima, mundurako il-ta Zuretzat bizi dedin; erukitsua zeran ez-kero, barka zaizkiozu argalkeriz egin zituen pekatu guziak, Jesukristo gure Jaunagatik. Alaxe.



